

## **Erakundeek gorazarreak egin dizkiete Iberdrola Ligara igo ondoren**

*Arabako diputatu nagusiak, Gasteizko alkateak eta Batzar Nagusietako presidenteak oroigarri plaka bat banatu dute gertaera honen harira*

**Vitoria-Gasteiz, 2021eko maiatzaren 31.** Arabako Foru Aldundiak, Gasteizko Udalak eta Arabako Batzar Nagusiek Deportivo Alaveseko jokalaria eta teknikariak omendu nahi izan dituzte, emakumezkoen futboleko elitera igotzea lortu ostean. Loriatsuek atzo ziurtatu zuten helburua Atletico Madril Bren aurkako partida bikain baten ostean, eta gaur, Artium Arte Garaikideko Zentro-Museoan, erakundeen txalo zaparrada jaso dute.

Ekitaldian Ramiro Gonzalez Arabako diputatu nagusiak, Gorka Urtaran hiriburuko alkateak eta Pedro Eloseggi Batzar Nagusietako presidenteak parte hartu dute, eta plaka oroigarri bat eman diete Mery Ortiz de Pinedo Gloriosoen kapitainari eta Alfonso Fernandez de Troconiz Alaveseko presidenteari.

Diputatu nagusia pozik agertu da hemendik aurrera gizezkoen eta emakumezkoen taldeak dituztelako futbolaren eta saskibaloiaeren elitean, eta azpimarratu duenez, "Klubarekin batera jarraituko dugu lanean, proiektuak aurrera egin dezan, Alaves erreferente are handiago bihurtzeko urratsak eman daitezen eta horrek Lurraldean eta arabarretan eragina izan dezan".